



zertarako ?

2) Halaber ikasleei buruz. Jende helduok gure sostengua ekartzen ahal diegu, askatasun eta demokrazia uneak lor ditzaten.

3) Euskal Herri osoan euskara erakatsia izan dadin borrokatu behar dugu: helburu honetan, gurasoek, ikasleek eta salariatuek elkarrekin prestatu ekintzak egiten ahal dira hainbat eskolatan.

4) Ditugun egitura tiki eta xumeak atxikitzeke eta berriak sortzeko borrokatu behar dugu.

Ikastolen adibidea

Eztabaida honetatik ez dugu egitasmo alternatibo handi bat sortuko, naski; alde batetik jarrera defentsiboan dagoelako eskola gaur egunean eta, bestetik, hezkuntza ez delako bakarrik zerbitzu publiko gisa hartu behar, baizik eta denen ondasun gisa: haren kalitatea, beraz, ez dago sekto-reko profesionalen esku soilik.

Ikastolen adibideak erakusten du elkarrekiko motibazioa oso garrantzitsua dela egitasmo amankomunak abiarazteko. Ikastolak perfektuak ez badira ere, alternatiba eredugarriak dira, ez bakarrik desko-

lonizazioa ahalbidetu dutelako hain funtsezkoa den hizkuntza mailan, baizik eta beren xede eta iharduere-tan ere haurra eta haren jaregintasuna errespetatzen dituztelako; eta hori irakasleen, gurasoen inplikazioari esker, ahantzi gabe garai bateko mugimendu zabalaren ekarpena.

Bestalde, orain ikastetxeetan gertatzen ari den mugimendua, oinarrian antolatua da, eta langile desberdinen arteko, gurasoen eta irakasleen arteko, sindikatuen eta ez-sindikatuaren arteko hesiak kentzen dituen neurrian, eztabaida une garrantzitsua izan daiteke, ez bakarrik nahi ez dugun eskolaz aritzeko, baina ere bai nahi dugun eskolari gehien hurbiltzen dena nolakoa datekeen ikusteko.

Bururatzeko, oroitaraziko dugu esperientzia alternatiboak baditugula; pribatuak, hala nola Montessoriko eskola, aski elitista gure ustez; eta publikoak, adibidez autogestioan ari diren lizeo esperimentalak (Paris, Saint-Nazaire), eta abar.

eskolari leporatzen dizkiogun akatsen zerrenda

- Eskolen barneko demokraziaren gabezia; ikasleen erranak eta errebindikazioak kontuan hartu ez izatea.
- Ikastetxeetako buruen agintea gero eta handiagoa.
- Euskararen irakaskuntza eza eskola gehienetan eta, zerbait egiten dutenetan, hizkuntza horri ematen zaion menpeko lekua, kasik sinbolikoa.
- Haur eta gaztetxoentzat batere egokiak ez diren eskola-erritmoen inposatzea,aldi berean zinismo handiaz erraten delarik ikaslea ez dela sistemaren ardatza
- Ebaluaketen obsesioa, adin txiki-txiki-tarik hasirik
- Behin-behineko lanpostuen gehitzea - Klaseko ikasleen kopuru handiegiak
- Langileen eta ikasgaien arteko hierarkia
- Polibalentziaren eza gazteei ematen zaien formazioan

Gertatuko dena

- Talde pribatuen esku ezarriko dira hainbat eginkizun, horrela sakonduz baliabideen desberdinkeria bai ikastetxeen artean eta bai gazteen artean
- Orain jadanik xokoratuak diren ikasgaiak ez dira gehiago erakatsiko
- Aski errentagarri jotzen ez diren adarrak deuseztatuko dituzte, irakasleen hautua murriztuz - Enpresa buruek esku sartzea izango dute formazioaren arloan
- Joaten diren langile batzuk ez dituzte ordezkatu
- Ez dute lanpostu berririk sortuko
- Ikusi beharko dugu tiki-egi eta garestiegi deritzeten eskolak nola bateratuko dituzten, egitura kontzentratu, gogor eta bizi-gaitzak eratzeko
- Desberdinkeria areagotuko dira bikaintasuna eskaintzen dituzten eskolen eta besteen artean.